

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

18/2014 FORU DEKRETUA, ekainaren 17koa, Gipuzkoan Euskararen Foroa sortzekoa.

Gipuzkoa lurralde euskalduna da eta euskaraz bizi nahi du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahia eta asmoa da herrialdearen errealitate soziolinguistikoarekin bat etortzea Foru Aldundiaren hizkuntza jarduerak eta euskararen sustapenerako garatuko dituen ekimenak. Euskaraz bizitzeko eskubidearen alde egiten du lan Foru Aldundiak, bere jardueran euskarari lehentasuna emanaz eta euskaraz bizi ahal izatea legez bermatzeko urratsak indartuz.

Horretarako, 2013ko irailaren 17ko 33/2013 Foru Dekretuak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, xedatzen du Euskara Zuzendaritza Nagusiaren eginkizuna izango dela, orobat, Aldundiaren politika publikoa zuzentzea, euskararen erabilera ziurtatzeko Aldundiaren zereginetan eta Gipuzkoako bizitza sozialaren esparru guztietan.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak lehentasunezkotzat jotzen du hizkuntza normalizazioaren inguruan lan egiten duten eragileekin lankidetzan aritzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartzeko demokraziaren eta zuzeneko demokraziaren filosofia politikoa hedatzea du helburu, delegazioa eta ordezkariak oinarri duen kulturatik, norberaren ardura eta parte-hartzea oinarri duen kulturara pasatzeko.

Horretarako, foru dekretu honen bidez, Euskararen Foroa sortzen da, beraren xedea izango baita euskararen erabilera sustatzeko Aldundiak antolatutako dituen politika publikoetan gipuzkoarrei parte hartzea eta erabakietan eragitea ahalbidetzea, aholkuak emanez eta proposamenak eginez.

Hori guztia dela eta, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolamendu, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 31.4. artikuluan xedatzen duena betez, nik proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. *Sorrera eta atxikipena.*

1. Euskararen Foroa sortzen da Gipuzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen erabilera soziala sustatzeko antolatutako dituen politika publikoetan aholkularitza emateko xedez.

2. Euskararen Foroa atxikitzen zaio hizkuntza politikaren zereginak esleituta dituen departamentuari, gaur egun Diputatu Nagusiaren Alorrari, nahiz eta horrek ez duen esan nahi beraren egitura hierarkikoan integratzen denik.

2. artikulua. *Xedea eta esparrua.*

Euskararen Foroa izango da aholkularitza eta lan organo plural bat, eta bere xedea izango da Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntzea euskararen erabileraren aldeko politika aktibo eta zeharkako bat garatzen.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 18/2014, de 17 de junio, por el que se crea el Foro del Euskera en Gipuzkoa.

Gipuzkoa es un territorio vasco parlante, que desea vivir en lengua vasca. Es propósito de la Diputación Foral de Gipuzkoa que su práctica lingüística y sus iniciativas de desarrollo de la promoción del uso del euskera sean coincidentes con la realidad sociolingüística del territorio. La Diputación Foral trabaja a favor del derecho a vivir en euskera, otorgando prioridad a la lengua vasca en su actividad y fortaleciendo las garantías legales que posibiliten una vida en lengua vasca.

Para ello, el Decreto Foral 33/2013, de 17 de setiembre, sobre estructura orgánica y funcional del Área del Diputado General, establece que corresponderá a la Dirección General de Euskera, en general, dirigir la política pública de la Diputación a fin de asegurar el uso del euskera tanto en su acción como en todos los campos de vida social guipuzcoana.

Asimismo, la Diputación Foral de Gipuzkoa considera prioritario profundizar en la colaboración con los agentes que trabajan en la normalización lingüística.

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene por objeto divulgar la filosofía política de la democracia participativa y la democracia directa, con la finalidad de pasar de la cultura basada en la delegación y en la representación, a la cultura basada en la responsabilidad individual y la participación.

A tal fin, en virtud del presente decreto foral se crea el Foro del Euskera en Gipuzkoa, cuyo cometido será el de posibilitar a los guipuzcoanos y guipuzcoanas la participación en la toma de decisiones en las políticas públicas que la Diputación lleva adelante en materia de promoción del uso del euskera, a través de sus propuestas y recomendaciones.

Por todo ello, en virtud de lo dispuesto en el artículo 31.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a mi propuesta, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en su sesión de hoy,

DISPONGO

Artículo 1. *Creación y adscripción.*

1. Se crea el Foro del Euskera en Gipuzkoa, con el objeto de prestar asesoramiento en las políticas públicas que la Diputación Foral de Gipuzkoa lleva adelante para la promoción del uso social del euskera.

2. El Foro del Euskera estará adscrito al departamento al que se le atribuyan las funciones y competencias en dicha materia, actualmente al Área del Diputado General, sin que ello conlleve su integración en su estructura jerárquica.

Artículo 2. *Objeto y ámbito.*

El Foro del Euskera se constituye como un órgano plural de asesoramiento y trabajo, cuyo objeto será el de contribuir a desarrollar una política activa y transversal de promoción del uso del euskera por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

3. artikulua. Eginkizunak.

Eginkizun hauek izango ditu Euskararen Foroak:

- a) Aholkularitza ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, euskararen aldeko beraren politika publiko guztietan.
- b) Laguntza ematea Aldundiari bere hizkuntza politikaren helburu estrategikoak eta operatiboak definitzen.
- c) Ekarpenak egitea Foru Aldundiak euskararen erabilera sozialaren aldeko hausnarketa estrategikoa sakondu eta aberasteko.
- d) Proposamenak egitea Foru Aldundiari, euskararen aldeko politika publiko hobek eta eraginkorragoak garatzeko.

4. artikulua. Osaera.

- 1. Euskararen Foroak organo kolegiatu baten jarduera izango du.
- 2. Foroa osatuko dute lehendakariak eta kide kopuru jakin batek, hamabi gutxienez eta hogeita hamar gehienez. Idazkari bat ere izango du, ahotsa bai baina botorik izango ez duena.
- 3. Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea bermatuko du Euskararen Foroak.

5. artikulua. Lehendakaritza.

- 1. Euskararen Foroaren lehendakaritza euskararen normalizazio eta sustapen eskumena bere gain hartzen duen zuzendari nagusiari dagokio.
- 2. Eginkizun hauek izango ditu Euskararen Foroaren lehendakariak:
 - a) Foroaren ordezkaritza izatea, haren eledun lanak beteaz.
 - b) Ohiko eta ohiz kanpoko bilkuren deialdia egitea, gaitzerrenda finkatzea, batzordekideek behar besteko aurrerapenez aurkezturiko eskariak kontuan hartuta.
 - c) Bilkuretako buru izan eta bilkurak amaitutzat jotzea, baita eztabaidetan moderatzaile lanak egitea ere.
 - d) Bozketa erabakitzea berdinketarik badago.
 - e) Foroaren aktak eta erabakien ziurtagiriak ikusi eta onestea.
 - f) Foroaren erabakiak egokitzat jotzen diren organizazio eta erakundeetara eramatea.
 - g) Organon kolegiatu bateko lehendakari karguari berez dagozkion gainerako eginkizunak betetzea.

6. artikulua. Batzordekideak.

- 1. Euskararen Foroko kideak aukeratuko dira euskararen arloan ospea eta esperientzia duten pertsonen artean, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimen eta programekin duten loturagatik.
- 2. Batzordekideen izendapena egingo da diputatu nagusiaren ebazpenaren bidez.
- 3. Euskararen Foroko kideei dagokie:
 - a) Behar besteko aurrerapenez jasotzea bilkuren gaitzerrenda biltzen duen deialdia eta bertan agertzen diren gaietaz buruzko informazioa.
 - b) Bilkuretako eztabaidetan parte hartzea.

Artículo 3. Funciones.

Serán funciones del Foro del Euskera:

- a) Ofrecer asesoramiento a la Diputación Foral de Gipuzkoa en sus políticas públicas a favor del euskera.
- b) Colaborar con la Diputación en la definición de los objetivos estratégicos y operativos de su política lingüística.
- c) Realizar aportaciones que ayuden a profundizar y enriquecer la reflexión estratégica de la Diputación Foral para el desarrollo del uso social de la lengua vasca.
- d) Presentar propuestas a la Diputación Foral para el desarrollo de políticas públicas favorables al euskera mejores y más eficientes.

Artículo 4. Composición.

- 1. El Foro del Euskera funcionará como órgano colegiado.
- 2. Estará compuesto por un presidente y un número de vocales que no podrá ser inferior a doce ni superior a treinta. Estará asistido por un secretario o secretaria, con voz pero sin voto.
- 3. En el Foro del Euskera se garantizará que haya una representación equilibrada de mujeres y hombres.

Artículo 5. Presidencia.

- 1. La presidencia del Foro del Euskera corresponderá a la directora o director general que asuma la competencia en materia de normalización y promoción del euskera.
- 2. El presidente o presidenta del Foro del Euskera tendrá las siguientes atribuciones:
 - a) Ostentar la representación del Foro, actuando como su portavoz.
 - b) Realizar la convocatoria de sesiones ordinarias y extraordinarias, y establecer el orden del día, teniendo en cuenta las peticiones de las y los vocales formuladas con la suficiente antelación.
 - c) Presidir y levantar las sesiones, así como moderar el desarrollo de los debates.
 - d) Dirimir la votación en caso de empate.
 - e) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos del Foro.
 - f) Trasladar los acuerdos del Foro a las organizaciones e instituciones oportunas.
 - g) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a la presidencia de un órgano colegiado.

Artículo 6. Vocales.

- 1. Las y los vocales del Foro del Euskera serán designados entre personas de reconocido prestigio y experiencia en el ámbito del euskera, en especial por su vinculación con los programas e iniciativas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- 2. La designación de las y los vocales se realizará mediante resolución del diputado general.
- 3. Corresponde a las y los vocales del Foro del Euskera en Gipuzkoa:
 - a) Recibir, con la debida antelación, la convocatoria conteniendo el orden del día de las sesiones y la información sobre los temas que figuren en él.
 - b) Participar en los debates de las sesiones.

c) Botoa emateko duten eskubideaz baliatzea eta boto partikularra ematea, baita botoaren esanahia eta justifikatzen duten arrazoiak adieraztea ere.

d) Eskaerak eta galderak egitea.

e) Beharrezko informazioa lortzea esleitutako eginkizunak betetzeko.

f) Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako txostenak edo lanak egitea.

g) Organo kolegiatu baten kideei berez dagozkien bestelako eginkizun guztiak betetzea.

4. Batzordekideen karguaren iraupena Foru Aldundiaren agintaldiarena izango da, karguari uko egin edo kargutik kendu ezean; eta agintaldia amaitzean berriz aukeratu ahal izango dituzte, edo agintaldia amaitu aurretik ordeztuak izan daitezke izendapen prozedura bera dela medio.

7. artikulua. Idazkaria.

1. Euskararen Foroko idazkaria euskararen sustapeneko eginkizunak dituen zuzendari nagusiak izendatuko du, zuzendaritzaren funtzionarioen artean.

2. Idazkariak eginkizun hauek izango ditu:

a) Bilkuretara bertaratzea, hitzarekin baina botorik gabe.

b) Bilkuretako aktak idatzi eta akta horien fede ematea.

c) Kontsulten, irizpenen eta harturiko erabakien egiazta-giriak ematea.

d) Foroaren bilkuren deialdia egitea lehendakaritzaren aginduz.

e) Idazkariari berez dagozkion bestelako eginkizun guztiak betetzea.

8. artikulua. Funtzionamendua.

1. Euskararen Foroak urtean behin, gutxienez, ohiko bilkura bat egingo du.

2. Foroak ohiz kanpoko bilkurak egingo ditu lehendakariak, bere ekimenez, hala erabakitzen duenean, edo kideen heren batek hala eskatzen duenean, atzeratu ezin diren gaiak aztertzeko.

3. Gainerako guztian, Foroaren funtzionamendua 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, II. tituluko II. kapituluan bildutako arauak xedatutakoari egokituko zaio.

9. artikulua. Lan batzordeak.

1. Euskararen Foroak erabaki ahal izango du lan batzordeak sortzea aldi baterako edo izaera egonkor batez.

2. Lan batzordeak arduratuko dira, bakoitza bere esparruan, Foroak esleitzen dizkien lanak prestatzeaz.

10. artikulua. Laguntza teknikoa eta administratiboa.

Euskararen Foroak eta lan batzordeek, halakorik balego, euskararen sustapeneko eginkizunak dituen zuzendaritza nagusiaren laguntza teknikoa eta administratiboa izango dute, beren funtzionamendurako.

c) Ejercer su derecho al voto y formular su voto particular, así como expresar el sentido de su voto y los motivos que lo justifican.

d) Formular ruegos y preguntas.

e) Obtener la información precisa para cumplir las funciones asignadas.

f) Elaborar ponencias, informes o trabajos solicitados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

g) Ejercer cuantas otras funciones sean inherentes a su condición de vocales de un órgano colegiado.

4. La duración del cargo de las y los vocales coincidirá con el período de mandato de la Diputación Foral, salvo renuncia o destitución, pudiendo ser reelegidos al término de su mandato o sustituidos antes de finalizarlo por el mismo procedimiento de designación.

Artículo 7. Secretaria.

1. La secretaria o secretario del Foro del Euskera será designada por la directora o director general encargado de la promoción del euskera, entre los funcionarios o funcionarias adscritos a su dirección.

2. La secretaria o secretario tendrá las siguientes funciones:

a) Asistir a las sesiones, con voz pero sin voto.

b) Redactar y autorizar las actas de las sesiones.

c) Expedir certificaciones de las consultas, dictámenes y acuerdos adoptados.

d) Efectuar la convocatoria de las sesiones del Foro por orden de la presidencia.

e) Ejercer cualesquiera otras funciones inherentes a la secretaría.

Artículo 8. Funcionamiento.

1. El Foro del Euskera celebrará, al menos una sesión ordinaria con carácter anual.

2. El Foro se reunirá en sesión extraordinaria cuando lo disponga la presidencia, a iniciativa propia o cuando así lo solicite un tercio de sus vocales, para tratar asuntos que no admitan demora.

3. En todo lo demás, el Foro se ajustará en su funcionamiento a las normas contenidas en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 9. Comisiones de trabajo.

1. El Foro del Euskera podrá acordar la creación de comisiones de trabajo con carácter permanente o temporal.

2. Las comisiones de trabajo se encargarán de preparar, dentro de su respectivo ámbito, los trabajos que les asigne el Foro.

Artículo 10. Apoyo técnico y administrativo.

El Foro del Euskera y, si las hubiere, las comisiones de trabajo, contarán, para su funcionamiento, con el apoyo técnico y administrativo de la dirección general encargada de la promoción del euskera.

11. artikulua. Funtzionamendu gastuak.

1. Euskararen Foroaren funtzionamendu gastuak euskararen normalizazio eta sustapen eskuduntza bere gain hartzen duen zuzendaritza nagusiaren aurrekontuaren kargura izango dira.

2. Euskararen Foroko kide izateak ez du inolako ordain-saririk jasotzeko eskubiderik ematen; alabaina, haren bileretara joateagatik kideek eskubidea izango dute organo eskudunak dieta modura onartzen dituen zenbatekoak jasotzeko, betiere 1993ko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, eta gainerako araudiak xedatutakoaren arabera.

3. Halaber, Foroko kideek egiten dituzten lanengatik edo txostenengatik, baldin eta dedikazio berezia eskatzen badute, ordainsaria jaso ahal izango dute, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legeak onartutakoak, xedatutakoa betez.

Xedapen gehigarria. Foroa eratzea.

Foru dekretu hau indarrean jartzen denetik sei hilabeteko epean eratu beharko da lehenengoz Euskararen Foroa.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2014ko ekainaren 17a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

(6001)

Artículo 11. Gastos de funcionamiento.

1. Los gastos de funcionamiento del Foro del Euskera serán con cargo a los créditos presupuestarios de la dirección general que asuma la competencia en materia de normalización y promoción del euskera.

2. La pertenencia al Foro del Euskera no origina derecho a retribución alguna, pero la asistencia a sus reuniones dará derecho a percibir, en concepto de dietas, las cantidades que por tal concepto se aprueben por el órgano competente, de acuerdo, en todo caso, con lo dispuesto por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio y demás normativa vigente.

3. Asimismo, los eventuales trabajos, elaboración de informes o ponencias que desarrollen los miembros del Foro y que comporten una dedicación especial podrán ser retribuidos, ajustándose, en todo caso, a lo estipulado por el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

Disposición adicional. Constitución del Foro.

El Foro del Euskera habrá de constituirse por primera vez en el plazo de seis meses a contar desde la entrada en vigor del presente decreto foral.

Disposición final. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 17 de junio de 2014.

EL DIPUTADO GENERAL,
Martin Garitano Larrañaga.

(6001)